**Bilboko Udalaren eta Bilbao Zerbitzuak entitatearen arteko hitzarmena, epe exekutiboko diru-bilketaren gainekoa**

BILDU DIRA:

Alde batetik, Marta Ajuria Arribas andrea, Bilboko Udaleko Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria.

Bestetik, Álvaro Pérez Alonso jauna, "Bilbao Zerbitzuak" tokiko enpresa-entitate publikoko administrazio-kontseiluko presidente egitezkoa

PARTE HARTZAILEAK

Lehenak parte hartzen du Bilboko Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, eta alkatearen berariazko baimena du horretarako, Alkateak 2023ko ekainaren 17eko ebazpenaz emana

Bigarrenak, Álvaro Pérez Alonsok parte hartzen du "Bilbao Zerbitzuak" tokiko enpresa-entitate publikoaren izenean eta hura ordezkatuz, alkateak izendatu baitzuen 2023ko uztailaren 12ko ebazpenaz erabakitako eskuordetza bidez.

Alde biek aitortzen diote elkarri gaitasun juridikoa, bakoitzaren ordezkaritza eta ageriki betetzen dituzten kargu publikoak medio eta zeini bere erakundeak hitzarmen hau sinatzeko esleitutako ahalmenak medio, Diru-bilketari buruzko erakunde arteko Hitzarmen bat baita, eta honako aurrekari hauekin bat etorriz gauzatzen baitute,

AURREKARIAK

I. Bilboko Udalak bere eskumenen artean du zuzenbide publikoko diru-sarrera borondatezko epean kobratu gabeak epe exekutiboan kobratzeko kudeaketa.

**Convenio de Recaudación en período ejecutivo suscrito entre el Ayuntamiento de Bilbao y Bilbao Zerbitzuak-Servicios**

REUNIDOS

De una parte, la Sra. doña Marta Ajuria Arribas, Concejala Delegada de Hacienda del Ayuntamiento de Bilbao.

De otra, el Sr. don Álvaro Pérez Alonso, Presidente Efectivo del Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Local “Bilbao Zerbitzuak-Servicios”

INTERVIENEN

La primera, en nombre y representación del Ayuntamiento de Bilbao, para lo que se encuentra expresamente autorizada por Resolución de Alcaldía de delegación de 17 de junio de 2023

El segundo, Álvaro Pérez Alonso, en nombre y representación de la Entidad Pública Empresarial Local “Bilbao Zerbitzuak-Servicios”, nombrado por resolución de delegación de Alcaldía de fecha 12 de Julio de 2023

Reconociéndose ambas partes mutua capacidad jurídica, en virtud de la representación y cargos públicos que notoriamente ejercen y las facultades otorgadas por las respectivas Instituciones para el otorgamiento del presente Convenio de Recaudación interinstitucional, que llevan a efecto de acuerdo con los siguientes,

ANTECEDENTES

I. El Ayuntamiento de Bilbao, contempla entre sus competencias la gestión del cobro en período ejecutivo de los ingresos de derecho público no cobrados en

período voluntario.

II. Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoak ez dauzka zuzenbide publikoko diru-sarrera borondatezko epean kobratu gabeak kobratzeko behar diren bitartekoak.

III. Ildo horretan, 2022ko martxoaren 21ean betearazpen aldiko Dirubilketa Hitzarmena sinatu zen Bilboko Udalaren eta Bilbao-Zerbitzuak erakundearen artean. Hitzarmen hori ekitaldi honetan eguneratu da eta honela idatzita geratu da

II. Bilbao Zerbitzuak-Servicios, carece de los medios necesarios para la reclamación de los ingresos de derecho público que le competen no cobrados en período voluntario.

III. Con este motivo se firmó en fecha 21 de marzo de 2022 Convenio de Recaudación en periodo ejecutivo entre el Ayuntamiento de Bilbao y Bilbao Zerbitzuak-Servicios, cuya actualización se efectúa en el presente acto, quedando redactado del modo que se estipula a continuación

XEDAPENAK

LEHENENGOA

Bilboko Udalak kudeatuko du epe exekutiboko diru-bilketa, eta kudeaketa hori iritsiko da are eta Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoaren zuzenbide publikoko diru-sarrera borondatezko epean ez kobratuen zordunen ondasunak enbargatu eta besterentzeraino.

BIGARRENA

Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoak hitza ematen du Bilboko Udalari behar duen informazio guztia emango diola, hark ezarriko duen moduan, hitzarmen honen xedea bete ahal izateko.

Epe exekutiboko diru-bilketaz den bezainbatean, honako alderdi hauek zehazten dira:

1. Espediente exekutiboa

Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoak Bilboko Udalari jakinaraziko dizkio data horretan kobratzeko dauden zorren kopuruak.

Bilboko Udalak aztertu egingo du jasotako informazioa, eta Bilbao Zerbitzuak entitateari jakinaraziko dio ea onartzen duen edo ez epe exekutiboko

ESTIPULACIONES

PRIMERA

El Ayuntamiento de Bilbao gestionará la actuación recaudatoria en período ejecutivo, llegando incluso al embargo y enajenación de bienes de los deudores de ingresos de derecho público no cobrados en período voluntario que correspondan a Bilbao Zerbitzuak-Servicios.

SEGUNDA

Bilbao Zerbitzuak-Servicios se compromete a facilitar toda la información que el Ayuntamiento de Bilbao precise, en la forma que este determine, para poder cumplir con el objeto de este convenio.

En relación con la recaudación en período ejecutivo, se precisan los siguientes aspectos:

1. Expedientes ejecutivos

Bilbao Zerbitzuak-Servicios comunicará al Ayuntamiento de Bilbao los conceptos e importes de las deudas pendientes de cobro a esa fecha.

El Ayuntamiento de Bilbao revisará la información recibida y comunicará a Bilbao Zerbitzuak-Servicios, la aceptación o no de la gestión de la actuación recaudatoria en

diru-bilketa kudeatzea.

Kudeaketa hori onartzen badu, espedienteak bidaliko dizkio, borondatezko ordainketaren epean egindako kudeaketak egiaztatzen dituzten agiriak erantsiz.

2. Euskarri informatikoa

Zorrak kudeatzeko eskualdatzean, orobat bidaliko dira Bilboko Udalak informazioa egokitasunez tratatzeko beharko dituen zerrendak eta euskarri informatikoak. Alde biek adostuko dute euskarriaren edukia eta edukiari emango zaion araua, eta, horretarako, dagokien departamentu teknikoek beharrezkoak diren irizpideak onetsiko dituzte, eta euskarrien gutxieneko edukia, berriz, honako hau izango da:

.- NAN/IFZ

.- Izen-deiturak / sozietatearen izena

.- Helbidea

.- Kontzeptua

.- Zenbatekoa

.- Ariketa

.- Jakinarazpenaren eguna

.- Borondatezko ordainketaren epea amaitzen den eguna

3. Erantzukizunetik salbuestea.

Bilboko Udalak eta Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoak elkar salbuesten dute edozein erantzukizunetatik, baldin eta zorren diru-bilketa exekutiboa beren gain harturik zor horiek kobratu ezina gertatu eta balioetan kalterik eragiten bada, edo preskripziorik gertatzen bada, edo beste edozerengatik, edo etorkizunean halakorik gertatzen bada, hitzarmen honen xede diren zuzenbide publikoko diru-sarrerengatik eginkizun hori bere gain hartuta.

período ejecutivo.

En aquellos casos en los que las deudas perseguidas sean aceptadas, los expedientes se remitirán adjuntando la documentación que acredite las gestiones realizadas en período de pago voluntario.

2. Soporte informático

El traspaso de deudas irá acompañado de las relaciones y soportes informáticos necesarios para que el Ayuntamiento de Bilbao pueda tratar adecuadamente la información. Ambas partes acordarán el contenido y norma que se dará al soporte, para lo cual serán adoptados los criterios precisos por los departamentos técnicos correspondientes, siendo el contenido mínimo el siguiente:

.- DNI/NIF

.- nombre apellidos / razón social

.- dirección

.- concepto

.- importe

.- ejercicio

.- fecha de notificación

.- fin período de pago voluntario

3. Exoneración de responsabilidad.

El Ayuntamiento de Bilbao y Bilbao Zerbitzuak-Servicios se exoneran recíprocamente de cualquier responsabilidad por perjuicio de valores, prescripción o cualquier otra circunstancia que suponga la incobrabilidad de las deudas cuya recaudación ejecutiva hayan tenido o tengan en el futuro a su cargo por los ingresos de derecho público objeto de este convenio.

4. Ordainketaren frogagiriak

Bilboko Udalak bide exekutiboan egindako ordainketen frogagiriak emango ditu, eta, horretarako, beren-beregi diseinatutako inprimakiak edo sistemak erabiliko ditu.

5. Errekurtsoak

a) Bilboko Udalak izapidetutako premiamendu-prozeduran zehar aurkezten diren errekurtsoak.

Bilboko Udalak berak ebatziko ditu, nahiz eta Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoak lehenagotik egindako jardunei buruzkoak izan. Hala, bada, Bilbao Zerbitzuak tokiko enpresa-entitate publikoak hitz ematen du Bilboko Udalaren esku utziko duela bere esku daukan informazioa, errekurtsoa ebazteko; horretarako, txostenak jaulki beharko ditu, ebazteko beharrezkoak direnak, eta komunikazio-bitarteko errazak ezarriko ditu, errekurtsoak arin eta eraginkortasunez ebazteko. Hala, aldeek pertsona bana izendatuko dute harremanetarako eta posta elektronikoko helbide bana emango diote elkarri.

Era berean, Bilboko Udalaren aurrean epe exekutiboan aurkeztutako errekurtsoa likidazioaren funtsari buruzkoa bada edo haren aurka egiten badu, Bilbao Zerbitzuak entitateari helaraziko zaio, eta hark ebatzi eta Bilboko Udalari helaraziko dio ebazpena, betearaz dezan.

b) Lehenago Bilbao Zerbitzuak entitateari aurkeztutako errekurtsoak hark berak ebatziko ditu, eta Bilboko Udalari helaraziko dizkio ebazpenak, betearaz ditzan.

c) Auzitegi Ekonomiko Administratiboan edo Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan ebazteke dauden errekurtsoen kasuan, prozedura bertan behera uztea erabaki ez bada, Bilbao Zerbitzuak udal entitateak sustatuko ditu alegazioak eta gauzatuko ditu jardun judizialak, harik eta epai edo ebazpen

4. Documentos justificativos del pago

El Ayuntamiento de Bilbao entregará los documentos acreditativos del pago en vía ejecutiva, utilizando para ello los impresos o sistemas que se diseñen al efecto.

5. Recursos

a) Recursos que se presenten durante el procedimiento de apremio tramitado por el Ayuntamiento de Bilbao.

Serán resueltos por el Ayuntamiento de Bilbao aún en el supuesto de que afecten a actuaciones practicadas con anterioridad por Bilbao Zerbitzuak-Servicios. En este sentido, Bilbao Zerbitzuak-Servicios se compromete a facilitar al Ayuntamiento de Bilbao la información disponible para la resolución de los recursos, deberá emitir los informes que se consideren precisos para su resolución y se establecerán cauces fluidos de comunicación en aras de una ágil y eficaz resolución de aquéllos. A tal fin, cada una de las partes designará una persona y un correo electrónico de contacto.

De igual modo, si el recurso presentado en período ejecutivo ante el Ayuntamiento de Bilbao se refiere o impugna el fondo de la liquidación, se remitirá para su tramitación a Bilbao Zerbitzuak-Servicios, de cuya resolución dará traslado para su ejecución al Ayuntamiento de Bilbao.

b) Los recursos presentados con anterioridad ante Bilbao Zerbitzuak-Servicios serán resueltos por ésta, que dará traslado de la resolución para su ejecución al Ayuntamiento de Bilbao.

c) En los recursos pendientes de resolución ante el Tribunal Económico Administrativo o Jurisdicción Contencioso-Administrativa en los que no se haya acordado la suspensión del procedimiento, sin perjuicio del cargo de las deudas al Ayuntamiento de Bilbao, Bilbao Zerbitzuak-Servicios promoverá las alegaciones y

irmoa ematen den arte, hargatik eragotzi gabe zorrak Bilboko Udalari kargatzea.

6. Zatikatzeak, geroratzeak eta geldieran utzitako zorrak

Hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira Bilbao Zerbitzuak udal entitateak emandako likidazioen ordainketa-zatikatzeak edo -geroratzeak, harik eta ezeztatu arte edo eraginkortasuna galdu arte.

Halaber, hitzarmen honetatik kanpo geratzen dira dagokionak espedientea bururatu arte geldieran utzi dituen likidazioak eta ordainagiriak ere.

7. Bilbao Zerbitzuak udal entitateari ordaintzea kobratutako zenbatekoak

Bilboko Udalak zordunengandik jasotzen dituen diru-zenbatekoak, jaso ahala, Bilbao Zerbitzuak udal entitatearen kontu korrontean sartuko dira, eta dagozkien egiaztagiriak entregatuko dira; salbuespen izango dira errekarguei, interesei eta kostuei dagozkien zenbatekoak.

HIRUGARRENA

Bilbao Zerbitzuak udal entitateak ebazten badu zergadunari itzuli behar zaizkiola kobratutako diru-zenbatekoak, Bilbao Zerbitzuak udal entitateak berak hartu beharko du bere gain itzulketa, bere baliabideen kontura.

LAUGARRENA

Hitzarmenean beren-beregi jasotzen ez diren gorabeherak interpretatu eta ebatzi behar izanez gero, hitzarmenaren espiritua eta xedea hartuko dira kontuan, eta uneoro egingo da ahalegina erakunde bien arteko adostasuna lortzeko, prestazioen finantza- eta ekonomia-orekaren eta elkarrekikotasunaren printzipioak aintzat hartuta.

seguirá las actuaciones judiciales hasta que recaiga sentencia o resolución firme.

6. Fraccionamientos, aplazamientos y deudas suspendidas

Quedan fuera de este Convenio los fraccionamientos o aplazamientos de pago de liquidaciones concedidos por Bilbao Zerbitzuak-Servicios hasta su cancelación o pérdida de eficacia.

Quedan también fuera del presente Convenio las liquidaciones y recibos suspendidos por quien corresponda hasta la finalización del expediente.

7. Pagos a Bilbao Zerbitzuak-Servicios de los importes cobrados

Las cantidades que se reciban de los deudores en el Ayuntamiento de Bilbao serán ingresadas en la cuenta corriente de Bilbao Zerbitzuak-Servicios conforme se vayan produciendo, a excepción de los importes correspondientes a recargos, intereses y costas, entregándose la correspondiente documentación acreditativa.

TERCERA

Si Bilbao Zerbitzuak-Servicios adoptare resolución en virtud de la cual deban devolverse al contribuyente las cantidades cobradas, será Bilbao Zerbitzuak-Servicios quien asuma la devolución con cargo a sus propias arcas.

CUARTA

La interpretación del presente Convenio y la resolución de las incidencias no contempladas expresamente en el mismo serán llevadas a cabo tomando en consideración el espíritu y finalidad de éste, procurando en todo caso el acuerdo entre las Instituciones inspirado en los principios de equilibrio económico-financiero de prestaciones y de reciprocidad.

Bilbon, 2024ko urtarrilaren 12an.

Álvaro Pérez Alonso

ALVARO PEREZ ALONSO - 78873085J

Firmado digitalmente por ALVARO PEREZ ALONSO - 78873085J
Fecha: 2024.01.31 11:39:07 +01'00'

Bilbao Zerbitzuak-Servicios

Bilbao, 12 de enero de 2024

Marta Ajuria Arribas

MARTA AJURIA ARRIBAS - 30640453Z
2024.02.01 11:02:36 +01'00'

Bilboko Udala - Ayuntamiento de Bilbao